

GAURKO MORATORIAK, BIHARKO GOSEA

Astearte honetan jakin dugu Ministroen Kontseiluak autonomoen eta Enpresa Txiki eta Ertainen (ETEen) alokairurako beste neurri batzuk iragarri dituela, baina oraindik ez dira nahikoak. Alokairuen moratoriak ez dira nahikoak; izan ere, zertarako balio digu gaur arnasteak bihar oxigenorik gabe geratuko bagara? Nola aterako gara aurrera hau igarotzen denean, gure negozioak berriro irekitzeko kostuari eurorik sortu ez dugun iraganeko alokairuen zama gehitu behar badiogu?

AEE-AUPA Euskadin, lehen minututik ari gara benetako laguntzak eskatzen:

Lokalen alokairuen ordainketa Lege bidez baliogabetzea, eta jabeak izatea zenbateko hori administrazio publikoaren aurrean erreklamatzeko dutenak, behar izanez gero, eta administrazioak ordaintzea zenbateko hori.

Autonomoen kuotei dagokienez, Alarma Egoerak irauten duen hilabeteetan barkatzea, martxoan kobratu zena barne, alde batera utzita otsailari dagokion edo ez; eta negozioaren jarduerari berriro ekiten zaionean, ordaintzeko erraztasunak jartzea.

Iragarpen berri honen aurrean, autonomoentzako laguntzak ezartzen direnean gutxieneko batzuk bete daitezela eskatzen jarraitzen dugu:

ETEentzako eta autonomoentzako partidak bereiztea. Ez dugu berdin ordaintzen eta ez dugu berdin irabazten; beraz, gure ustez, oso logikoa da laguntzak desberdinak izatea, kolektibo bakoitzaren beharrak hobeto betetzeko.

Langile autonomo askoren egoera premia larrikoa denez, zorrak ordaintzearen edo familiari jaten ematearen artean aukeratu behar izaten ari direlarik, **administrazio publikoei zorretan daudenen kasuak azter ditzatela eskatzen diegu, eta ez ditzatela baztertu okerren pasatzen ari diren pertsonak.** Badakigu askotan ez dela ez ordaindu nahi izatea, ezin dela ordaindu baizik.

Beharizan hori kontuan hartuta, **laguntzak bateragarriak eta ez-baztertzaileak izan daitezela eskatzen dugu, eta, gainera, malguak izan daitezela, euskal langile autonomo gehienengana irits daitezzen.** Onartezina da, lehen deialdi lotsagarriarekin gertatu den bezala, ezin sartu izatea SL bat duten pertsonak, baliabide informatikorik ez dutenak edo nola erabili ez dakitenak.

Uste dugu orain inoiz baino gehiago beharrezkoa dela kolektibo autonomoaren ahotsa entzutea, inoiz baino ukituago dagoelako. Horregatik, **Eusko Jaurlaritzari eta Gobernu Zentralari laguntza horiek planifikatu eta ezartzerakoan autonomoen elkarte guztien ordezkariak sar ditzatela exijitzen diegu.** Kale mailan gaudenak gu baikara, eta badakigu nola eman litekeen arnas piska bat egoera zail honetan.

Jarri harremanetan Aupa Euskadi/Autonomoak Ekintzarako Elkarrekin elkartearekin:

infoaupaeuskadi@gmail.com

Ainara 685 255 249 Juncal 669 465 668